

UDAN BAI >> HABANAKO HITZALAK (ETA V)**IÑIGO ARANBARRI**

Cazalis Segundooren semea zen Segundo Cazalis. Aita, 1894an jaio zen Markinan, eta herrian askok bezala, pilota izan zuen bizibide. Anaia Rikardoren urratsen orpota, Bartzelonan, Buenos Airesen, Mexikon eta Habanako Jai Alain aritu ostean, artekari izan zen Oihuen Jauregian. Semeak, aldiz, xistera baino nahiago zuen idatzi. Kazetari egin zen. Bera izan zen Hemingwayren idazkari eta itule hau Kubara iritsi zen aurreneko bi-daian.

1958an Venezuelaren zebilen Cazalis, Martin Ugaldek bere artikulua argitaratzen zituen *El Nacional* egunkarian lanean, Sierra Maestran sartzeko aukera sortu zitzaionean. Iraultzaileek La Platan ezarria zuten komandantzia nagusira heltzea lortu zuen, eta Fidel Castrorekin elkarriketa argitaratzea. 1957ko otsailean *New York Times*-en Herbert Mathews-ek bidea ireki zuenetik, bakan batzuk soilik erdietsi zuten zer bait.

Garaipenaren ostean, Movimiento 26 de Julio-ren egunkari ofiziala zen *Revolución*-en aritu zen. *Siquitrilla* izeneko atala sinatzen. Carlos Franqui zen zuzendaria, eta Guillermo Cabrera Infante astelehenetako *Lunes de Revolución* berezikoa. Artikulu horietan bila joana nintzen Real Sociedad Economica-ren eraikin historikoan dagoen Literatura eta Hizkuntzalaritza institutura.

Liburutegi handian, Cervantes, Koperniko, Lineo, Pasteur, Konfuzio, Aristotele-ren izenak ditudala begira leiho gainetatik, irrikan irekitzen ditut kartoizko kutxak, askatzen listariak, zabalitzen esku artean hauts bihurtzen zaizkidan egunkariak. Bila nabilela, apunte interesgarriak: 60ko urtarrean, Moises Arrechea, Colon hilerriko kapilauaren gutuna, Miami-ko *La Rosa Blanca* aldizkaria igorri diotenei: «Aberrigabeak zarete, lukurak, ergelak, ez zarete itzuliko, ulertzen duzue?». Apaiz askok iraultzarekin bat egiten duten garaian nabil aztarrika. Iñaki Azpiaz azpeitiarrak: «Aurrera bada, zalantzarik gabe, hautatu duzuen bidean, iraganeko tristura atzean utziko duen etorkizunerantz». Urtarrilaren 21ean, kanporaketa baten berri. Juan Pablo Lojendio, Francoren gobernua Habanan zuen enbaxadorea eta Jose Maria Lojendio euskaltzainburuaren anaiaarena, bezperan Lojendio telebistan sartu eta zuzenean, Castroren diskurtsoa eten ondoren.

Oso anti-inperialista da *Revolución*, argazkietan ere, ikonografia baten mamitzaile ageri da: *Che ingenio* batean bisitan, Estatu Batuetako hegazkinek kanabera so-roetan egindako kalteak, Fidel zafra... Rene Depestreren artikulua, omenaldia Herbert

Cazalisen malura



Teilatuek, teila barik, bizitza dutenean. IÑIGO ARANBARRI

Segundo Cazalisena desilusio baten istorioa da. Sierra Maestran elkarriketatu zuen gizon haren iraultzari pertsonalegia zeritzon. Gainera, sobietarrek gaixotu egiten zuten.



Txinatar auzoa. IÑIGO ARANBARRI

Mathews-i, «amerikar handi bat». Cazalisen lanik ez, ordea, inondik ere.

Urtea aldatzea erabaki dut bilaketa errazteko. Atzera papera bete eta zain nago. Bost lagun baino ez gaude liburutegi handian. Aurreko neska biak, Kuban ez bada non, poemak kopiatzen ari dira antologia batetik. Leiho ondoan nago, eskola bateko ume hotsak datozkit. Arbola handien itzala patioan.

—Etorriko zara pixka batean?

Sarreraren pasaporteak erakutsi behar izan dudanean bostekoa emanda hartu nauen arduraduna da, emakume betaurrekodun sasoiakoa. Eraikin zaharreko klausorora aterata, inork ez entzuteko moduan, atzerapenaren azalpena ematen dit. Sentitzen duela, hain urrunetik etorrita gainera, baina ezin didala eskatutakoa ekarri. Barkatzeko, ez dutela biltegiko lanak egiteko inor, oso egoera larrian daudela, deialdiak egin arren, ez dela inor aurkezten. Au-